

APIRILA
2024

HERRIAK DU GEHIEN AGINTZEN

Raquel Varela eta Robson Vilalba (ilus)



Jose hirurogeiko hamarkadako Lisboako periferian hazi zen; Novo Estatuko azken urteen lekuko izan zen, bere lagun gurusoak Afrikako gerrara abiatzen ikusi zituen, 1967ko uholdeen biktimei babesa ematen parte hartu zuen eta herrialdetik kanpoko ideia politiko eta intelektualekin, liburuekin, filmekin eta musikarekin harremanetan jarri zen, askotan ezkutuan. Gaztaroan, borroka antifaxistaren garapenaren, zapalkuntzaren, esku hartzeko musikaren rolararen, Vilar de Mouroseko jaialdiaren eta 1974ko erregimenaren erorketaren lekuko izan zen. Soldadu gisa, ezker militarreko sektore aktiboenetako bat izango da, erradikalismoa, desobedientzia eta esku-hartze iraultzailea pertsonifikatuz.

Raquel Varela eta Robson Villalbaren eskutik, denboran zehar bidaiatu genuen apirilaren 25eko iraultzaren aurreko urteetara eta ondoren etorri zirenetara, eta garai hura gazarroaren intentsitatearekin bizi izan zuen norbaiten historia erdi fikzionatua ezagutu genuen.

KOMIKIA

ISBN: 978-84-10246-06-5
PÁGINAS: 176
FORMATO: 170 x 240
PVP: 21,00 € (inguru)

HISTORIA

MEMORIA HISTORIKOA

PORTUGAL

IRAULTZAK

ILUSTRATUAK

- Krabelinen iraultzaren 50. urteurrenean, Bertrand, Verso, Manifest Llibres eta Txalaparta argitaletxeek *El pueblo es quien más ordena* komikia argitaratu genuen aldi berean, lau hizkuntza ezberdinetan.
- Gaian aditua den Raquel Varela historialariak idatzi eta Robson Vilalbak ilustratutako komiki honek gertakizunak herriaren ikuspuntutik ezagutarazten ditu eta iraultzan behetik parte hartu zutenen esperientzien garrantzia ulertzen laguntzen du.
- 1974-75 Varelaren *História do Povo na Revolucao Portuguesa* saiakeran oinarritutako lana, Portugalgo iraultzari buruzko erreferentziatzko lana, hainbat hizkuntzatarantz itzulua izan dena.



RAQUEL VARELA

1978, Cascaes
Portugalgo historialaria da, unibertsitateko irakaslea, Lisboako Unibertsitate Berriko eta Amsterdamgo Gizarte Historiaren Nazioarteko Institutuko ikertzailea. Lanaren historian, lan-baldintzetan, langile-mugimenduan eta XX. mendeko Europako historian espezializatu zen. Hainbat liburu argitaratu ditu, eta horien artean Portugalgo iraultzaren historia nabarmentzen da (*Historia do Povo na Revolucao Portuguesa - 1974-75*).



ROBSON VILALBA

Gizarte Zientzietan lizentziatu zen Londresko Estatu Unibertsitatean (UEL), eta Soziologian masterra egin zuen Paranako Unibertsitate Federalean (UFPR). Umorezko erreportajeak argitaratu ditu *Folha de S. Paulon*, *Le Monde Diplomatique* Brasilen eta *Gazeta do Povon*. 2014an Vladimir Herzog Kazetaritza eta Giza Eskubideen Saria jaso zuen. *Notas de un tiempo silenciado* (Besouro Box, 2015) komikiaren egilea da, Brasilgo diktadurari buruzkoa. 2020an "Quando o corona vai embora?" saileko komikiak argitaratu zituen Elefanteren sareetan. (Noiz joango da koroa?), artistak bere alabarekin berrogeialdian izandako harremana islatzen duena.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eu
www.txalaparta.eu